

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak 356.000 euroko aparteko kredituaren foru lege-proiektua onartu du bi finka esperimentaletan inbertsioak egiteko

Sartagudako eta Orreagako finkak dira, INTIAk ustiatzen dituenak

Asteazkena, 2018.eko maiatzak 23

Aurtengo aurrekontuan 356.525 euroko aparteko kreditua emateko foru lege-proiektua onartzen duen akordioa onartu du gaurko bileran Foru Gobernuak, Nekazaritzako Teknologien eta Azpiegituren Nafarroako Institutuarentzat (INTIA), Sartagudako eta Orreagako finka esperimentaletan inbertsioak egitearren. Behin Exekutiboak onartuta, testua Nafarroako Parlamentura bidaliko dute, han eztabaidatzeko, eta, hala behar izanez gero, onartzeko.

Sartagudako etxaldea Nafarroako Gobernuarena da eta Orreagako Kolegiatarena. Biak INTIA sozietate publikoak ustiatzen ditu.

Sartagudakoari dagokionean, inbertsioa eraikin nagusia berritzeko egingo da; hau da, ura ez sartzeko estalkia konpontzea, edo aretoren bat egokitzea bilera-gela bezala, prestakuntza-ikastaroak egiteko gela moduan edo ate irekien jardunaldietara joaten diren pertsonak hartzeko gela gisa erabiltzeko.

Finka esperimental ureztatua da, 20 ha-koa; bertan, nekazaritzako biltegi bat dago, eta barazki eta fruituen produkzioen entseguak egiten dira aire librean eta 232 bariataterenak negutegietan. Neguko letxuga mota ezberdinak, eskarolak, sortetarako tipulak landatzen dira; tokiko tomateren bariatateak jasotzen dira; borrajen, zerben eta karduen izurriak kontrolatzen dira eta almendrondoenak, gereziondoenak, sagarrondoan, muxikondoan, irasagarrondoan eta udareondoan ere bai.

Orreagako finkari dagokionez, proiektuan erabilera mistoko bi abere-naberen estalkiak aldatu nahi dira, abereak ukuilurtzeko eta lehengaiak biltegitratzeko, duela 30 urtetik gora eraiki baitziren. Esnetarako ardien eta txahalen hazkuntzarako finka esperimentala da, eta 78 ha-ko azalera ardien nabea eta gaztandegia ditu. Nabarmendu behar da artalde bat mantentzen dela "Aurpegi Beltz" motako latxa ardiekin esne ekologikoa produzitzearen inguruan esperimentatzeko, araldi naturalen bitartez intseminazioaren eraginkortasuna ebaluatzeko, eguneroko esnearen kontrola automatizatzeko, edota Orreagako ipar-mendebaldeko zonan larre-eremuen ustiapen eta hobekuntza erakusteko esperientziaren proiektua ere bai.

Guztira, INTIAk hamaika finka ditu barazki eta fruituen eta zerealen esperimentaziorako, bertako arrazak mantentzeko, intseminazio artifizialerako eta abereen kontzertaziorako. Finka esperimentaletan

aspaldiko urteetan ez da inbertsiorik egin, eta Gobernuarentzat beharrezkoa da premia gehienekoak egitea garatutako esperimentazio-jarduerei eusteko, horien emaitzak sektorerara iristen dira eta.